

HERRITARREN PARE-HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 2021/11/23

SAILA	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du Urkirako Udalbuseko zerbitzua berriz jartzeko. Dioenez, Ubitxako geralekua ez da nahikoa.	Udalbusaren geralekua kendu egin zen, azterketa bat egin ondoren egiaztatu baitzen ez zela erabiltzen, eta, beraz, zerbitzu hori Taxibusaren zerbitzuarekin errefortzatu zen, eta nahikotzat jo zen auzoei zerbitzua emateko.
Hirigintza	Bizilagun batek galdetu du ez zer irizpiderekin eman zaion DIARI baimena igandean lan egiteko.	Baimen berezia eman zitzaion ordutegiz kanpo lan egiteko, lokalak Portalea eraikina osorik hartzen zuelako ustetan. Akatsa izan zen eta barkamena eskatzen da sortutako eragozpenengatik.
Udaltzaingoa	Auzokide batek eskatu du neurriren bat hartzeko Ubitxako bihurtzean. Adierazi du puntu arriskutsua dela.	Toki horretan istripu batzuk egon dira eta oinezko-harrapatze batzuk ere bai. 2019an hainbat jarduketa egin ziren segurtasuna hobetzeko, hala nola oinezkoen pasabideak goratzea eta zabaltzea. Aztertzen ari da ea neurriren bat har daitekeen segurtasuna hobetzeko.
Zerbitzuak	Kexa adierazi du 10, 12 eta 14 zenbakietako arkupeak txizaz eta amaraunez josita daudelako.	Arkupe pribatua bada, lana ez dagokio Mankomunitateari. Amaraunak garbitzailearen erratza iristen den tokiraino kentzen dituzte. Ezin da ureztatu, hezetasuna eragiten duelako toki horretako lokaletan.

HERRITARREN PARE-HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 2021/11/23

SAILA	Laburpena	
Obrak	Urki 16 zenbakiko auzokide batek eskatu du atari horren ostean falta den zatian galtzada-harria jartzea; izan ere, txakurrak han egiten dute txiza eta kaka.	Balorazioa egin da hurrengo aurrekontuei begira.
Zerbitzuak	Urki 6 zenbakiko auzokide batek eskatu du sasiak kendu eta garbitu ondoren, jaso dadila dena.	Lan hori azpikontrata batek egiten du. Erabaki zen inausketaren hondarren atzealdetik ez ateratzea, lanaren zailtasunagatik eta eskuz egin beharko zelako. Zerbitzu Sailak ez du uste merezi duenik, gastu gehiegizkoa ekarriko lukeelako.
Zerbitzuak	Kexu da estolderien estalkiak oso irristagarriak direlako Ubitxan eta Urkin.	Bi tokietako kutxatiletan tratamendu irristagaitza eman da arazoa konpontzeko.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da Ubitxako bihurgunean dauden edukiontzien ondoko espaloia altuegia delako, eta arriskutsua delako pedalak zapaltzea.	Mankomunitateak eskatu du pedalak beste posizio batean jartzeko, ahal bada.
Alkatetza	Galdetu du zergatik Udalak bakarrik eskaintzen duen zerbitzua goizez.	Udal-bulegoak arratsaldez ere zabaltzen dira, astelehenero, 19:30ak arte. Halaber, Pegorak (herritarrentzako arreta bulegoa) zerbitzua eskaintzen du 15:00etatik 19:00etara, astelehen, astearte eta asteazkenetan.

HERRITARREN PARE-HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 2021/11/23

SAILA	Laburpena	
Udaltzaingoa	Auzokide batek informazioa eskatu du auzozainaren lan-ordutegiari buruz.	Auzozainen ordutegia hauxe da: astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara. Uztailan eta abuztuan ez dago auzozain zerbitzurik.
Alcaldía	Herritar batek eskatu du atal bat jartzea webgunean ekarpenak egin ahal izateko.	Udal-webguneak badauka atal bat eskabideak, kexak eta iradokizunak egiteko. Honako estekan dago: https://www.eibar.eus/es/tramites/avisos-quejas-y-sugerencias Halaber, Udalak beste komunikazio-kanal batzuk ditu herritarrekin harremanetan jartzeko eta horien bidez eskabideak eta kexak igorri daitezke, hala nola mugikorrenzako <i>Eibar</i> aplikazioa.
Obrak	Ubitxa 8 zenbakiko bizilagun batek informazioa eskatu du jakiteko nola geratu behar den igogailua.	Lehen igogailuaren obrak 2021eko azaroan hasi ziren, eta bigarrenakoak 2022ko ekainean. Obren unitatean kontsulta daitezke proiektuak.
Zerbitzuak	Errekatxuko bizilagun batek eskatu du txukuntzeko bai kale hori bai Bolingua. Dioenez, goroldioz, sasiz eta eroritako arbolez josita daude.	Errekatxuko gune publikoetan sasiak kendu dira. Gune pribatuetan, Udalak ez du eskumenik sastrakak garbitzeko; hala ere, jabeen errekerimendua egin zaie zenbait eremutako arazoa konpontzeko, insalubritate-egoeratik.

HERRITARREN PARE-HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 2021/11/23

SAILA	Laburpena	
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du arazo garrantzitsu bat dagoela aparkalekuarekin, batez ere, beheko aldean TAO gunea jarri denetik.	Gaur egun, eztabaidatzen ari dira TAO n egin daitezkeen aldaketak, Eibarko premiei hobeto egokitzeko.
Zerbitzuak	Eskatu dute LED argiak jartzea Polonia Etxeberrian.	Led argien instalazioa poliki-poliki egiten ari da herri osoan. Urki auzoan ere aurreikusita dago Led argiak ordezte.
Zerbitzuak	Errekatxu kaleko bizilagun batek eskatu du produktu irristagaitz bat aplikatzeko kale horretako estoldetan.	Produktu hori aplikatu zen.
Zerbitzuak	Eibarko Txikito 6 zenbakiko bizilagun batek eskatu du sarriagotan garbitzeko eskailera mekanikoak.	Eskailera mekanikoak hilean bi aldiz garbitzen dira.
Udaltzaingoa	Kexu da botiloiak egoten direlako Eibarko Txikito inguruan eta inor ez dela haietaz arduratzen.	Konfinamendu-garaian, eta, batez ere, ostalaritza-establezimenduak eta gazteen lokalak itxita zeudenez, gazte asko baten zen gauzez Txaltxazelai bezalako tokietan. Gazte asko izanik, zaila zen Ertzaintzak eta Udaltzaingoa esku hartzea, desordena publikoak eta istiluak egon zitezkeelako.
Udaltzaingoa	Salatu dute jende asko egiten duela txiza Eibarko Txikito kaleko 6 zenbakiko atarian.	Pertsona bat kalean txiza egiten identifikatzen den bakoitzean, salaketa jartzen zaio Garbitasunaren Ordenantza urratzeagatik.

HERRITARREN PARE-HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 2021/11/23

SAILA	Laburpena	
Zerbitzuak	Eskatu dute Eibarko Txikito inguruko eskailera mekanikoen bigarren zatiko kristalak jartzeko.	Kristalak 2022ko apirilaren hasieran jarri ziren. Denbora dezente behar izan zen, lanen konplexutasunagatik, garabiarekin egin baitziren.
Zerbitzuak	Salatu dute Ubitxako garajeetan ura sartzen dela eskailera-kaxatik.	Aztertzen ari gara hainbat tokitako hezetasunak, jakiteko zeini dagokion konpontzea. Garaje hauek toki horietako bat dira.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du Punto y Aparte establezimendu inguruan izaten den zarata, eta kexu da Udaltzaingoa ez duelako esku hartzen.	Establezimendu horrek sortzen duen arazoaz jabetzen gara, eta asteburuetan ingurune horren kontrol espezifikoa egiten da, ordutegiak kontrolatuz. Hala ere, liskarren bat dagoenean, Ertzaintzarekin koordinatuta jarduten da.
Zerbitzuak	Ubitxako bizilagun batek eskatu du garbitzeko iturria inguratzen duen sarea.	Iturriaren sareta 2022ko apirilean garbitu zen.
Zerbitzuak	Jakinarazi du Ubitxako 17 zenbakiko kutxatila trabatuta dagoela eta ura espaloiraino iristen dela.	Ikuskaritza egin ondoren, ikusi da sareta trabatuta dagoela; hortaz, abisua pasatu zaio Mankomunitateari garbitu dezan.
Udaltzaingoa	Kexu da Unbeko kurban trafiko handia dagoelako eta kotxe asko egoten direlako aparkatuta.	Inguru horretan aparkalekua aurkitzea zaila denez, malguagoak gara horrekin, batez ere gauetan.

HERRITARREN PARE-HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 2021/11/23

SAILA	Laburpena	
Zerbitzuak	Herritar batek eskatu du kartel handi bat jartzeko edukiontzien-multzoetan, adieraziz noiz atera daitezkeen tamaina handiko hondakinak.	Abisua pasatu zaie Mankomunitatekoei, baina ez da beharrezkotzat jotzen kartel hori jartzea herriko edukiontzi-multzo bakoitzean. Mankomunitateak jakinarazten du noiz eta nola egiten diren halako bilketak.
Zerbitzuak	Kexu da Ubitxan, autopista azpian dauden edukiontziak oso toki irristagarrian daudelako.	Toki hori gehitu sartu da hilero Mankomunitateari pasatzen zaion zerrendan, desugertzeko makinak egin beharreko lanak antolatzeke.
Udaltzaingoa	Salatu du inork ez duela errespetatzen Unbeko jaitsieran dagoen STOP seinalea.	Toki horretan dagoen seinalizazioa zuzena da: seinale bertikal bat dago eta pintatutako markak galtzadan.
Udaltzaingoa	Kexa adierazi du igogailu asko baldintza txarretan daudela, ekintza bandalikoak egiten dituztelako.	Igogailuetan anomaliaren bat ikusten denean, haien mantentze-lanak egiteaz arduratzen den enpresari ohartarazten zaio. Kalteak nahita egin dituen pertsona identifikatu ahal izanez gero, bidezkoa den salaketa egiten da.
Zerbitzuak	Polonia Etxeberria 8-10 zenbakietatik Urkira doazen eskailerak garbitzeko eta argiztapena hobetzeko eskatu du.	Inguru hori ainubea da. Ugertzeko makina urtero pasatzen da, eta gunea astean 6 egunetan eskobatzen da. Halaber, eskailerak, gutxienez, astean 4 bider garbitzen dira. 2022ko abenduan, horman ainguratutako argi bat konpondu zen, aspalditik zegoena erreta.

HERRITARREN PARE-HARTZEA

Auzo-bilera: Urki

DATA: 2021/11/23

SAILA	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du Polonia Etxeberria inguruko argiteria hobetzeko.	Argi-azterketa bat egin zen, eta argiteria hobetu da LEDerako aldaketarekin.
Udaltzaingoa	Eskatu dute komunikazio hobea egotea Udaltzaingoaren eta Mankomunitatearen artean.	Baliteke uneren batean komunikazio falta egotea, baina oro har komunikazioa ona da, bai telefono bidez, posta elektronikoz, edo bilerak eginez beharrezkoa denean.
Zerbitzuak	Herritar batek eskatu du komun publikoak jartzea auzoan.	Aurrekontuak ez du aurreikusten komun publikoak jartzea. Aztertuko da ea komuna jartzea beharrezkoa den.
Zerbitzuak	Bizilagun batek kexa adierazi du edukiontziak Ubitxan duen harategiaren parean daudelako.	Led argien instalazioa poliki-poliki egiten ari da herri osoan. Urki auzoan ere aurreikusita dago Led argiak ordeztea.
Hirigintza	Galdetu du ea eraikuntzako enpresek epe bat duten lanak egiteko.	Lizentzia guztiak ematen dira gauzatzeko epe jakin batekin, egin beharreko obraren zailtasunaren arabera.